



EUSKARALDIA

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

ULMA Taldeko berripapera 3 zk.

Testigantzak

Zergatik erabaki duzu Euskaraldian izena ematea?



Edurne Unzueta. ULMA Handling Systems

“Ba euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzeko asmoarekin bat egiten dudalako, nire hizkuntza dela sentitzen dudalako eta bere etorkizunaren aldeko konpromiso irmoa dudalako. Covid-ak eragindako testuinguru zail honetan gainera, are eta beharrezkoagoa ikusten dut guztion konpromisoa indartzea”.




Juanpe Caballero. ULMA Agricola

“Gure esku dagoelako euskara bizirik mantentzea. Egun hauek garrantzitsuak iruditzen zaizkit euskara erabiltzeko ohiturarik ez duten pertsonen beldurra galtzeko eta eroso sentitzen hasteko”.

Eguneko datua

ULMA Taldean **%80** euskaraz ulertzeko gai gara.

2017ko datuen arabera, ulermenari dagokionez Euskal Herriko herriek ondoko mapan ikusten den itxura daukate. Gorriz, ulermena %80tik gorakoa duten herriak.



Pandoraren kutxa

Eta zuk zer hizkuntzatan hitz egiten diozu?



emun

5. eguna